

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

3867

200/2017 DEKRETUA, uztailaren 26koa, Estatuko Administrazio Orokorrak Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan duen bokal bat kendu eta beste bat izendatzeko dena.

Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, atariko tituluaren II. kapituluan, interes orokorrekoen artean sailkatutako portuak arautzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilboko eta Pasaiaiko portuak sartzan dira interes orokorrekoen artean.

Estatuaren lurraldea antolatzeko modua eta lurralde horretako interes orokorreko portuek autonomia-erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako legegintzako errege dekretuak beharrezko neurriak ezartzen ditu erkidegoek portuetako agintaritzaren antolakuntzako egituretan parte-hartze handiagoa izan dezaten. Izan ere, agintaritzaren egitura horiek portuak artezten dituzten organoak dira.

Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikuluan 1. eta 2. paragrafoek honela diote:

«1.– Administrazio Kontseiluak honako kide hauek ditu:

(...)

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Bokal-kopuru bat, 10 eta 13 artekoa. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopuru hori ezartzea, baita bokalak izendatzea ere.

2.– Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, c) letran aipatu diren bokalak izendatzekoan, honako irizpide hauek errespetatuko dituzte:

a) Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkari bat bokal horietako hiruk eta itsas kapitainak izango dute. Bokaletako bat estatuaren abokatua izango da, eta beste bat, Estatuko Portuak Era-kunde Publikokoa.

b) Autonomia Erkidegoa lehendakariak eta lau bokalek ordezkariak dute.

c) Kanariar Uharteetan, kabilido bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear Uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuaren zerbitzugunea euren mugartean duten udalek Kontseiluko gainontzeko kideen % 33ko ordezkari bat izango dute. Eraginpeko udalak bat baino gehiago badira, lehenik eta behin ordezkari bat honako hauei egokituko zaie: Portu Agintaritzak administratutako portuari/ei izena ematen dien haiei; eta gero gainontzekoei: zerbitzuguneak eragiten dion udalmugarte-azalerarekiko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen ehuneko 66a, honako hauen ordezkari izendatuko da: merkataritza-, industria-eta nabigazio-ganberei, enpresa- eta sindikatu-erakundeei, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoei.

Bokalen izendapena, nahitaez, Administrazio Kontseiluan ordezkari izendatuko duten administrazio publikoek, erakundeek eta organismoek proposatuta egingo da. Estatutuko Administrazio Orokorren kasuan, Estatuko Portuak Erakunde Publikoko lehendakariak egingo du proposamena.

Administrazio Kontseiluko bokalen izendapenek, lehen paragrafoko c) letran aipatzen direnek, lau urteko indarraldia izango dute. Izendapena berri ahal izango da, alde batera utzi gabe hurrengo lehen aldian ezarritakoa.

Kontseiluko bokalak kargutik kentzeko erabakia autonomia-erkidegoko organo eskudunak hartuko du, bokal horiek ordezkari izendatzen dituzten antolakundeek, organismoek eta erakundeek hala proposatuta».

Arau horietan ezarritakoa betetzeko, Pasaiako Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan Estatuko Administrazio Orokorra ordezkari izendatuko duen bokal bat kendu eta beste bat izendatzeko proposamena jakinarazi dio Estatuko Portuak Erakunde Publikoaren lehendakariak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari.

Horiek horrela, eta Jaurkitari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2017ko uztailaren 26an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Pasaiako Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal-kargutik kenduko da jarraian adieraziko den pertsona, honako zuzenbide publikoko erakunde juridikoak proposatuta:

Estatuko Portuen Lehendakariak eskatuta: Macarena Olona Choclán andrea.

2. artikulua.– Ondoren zehaztu zuzenbide publikoko entitate juridikoak eskatuta, eta maiatzaren 5eko 2/2011 Dekretuaren 30. artikuluan 2. paragrafoan aurreikusitakoari jarraituz, Pasaiako Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal izendatzea, haren ordezkari izateko:

Estatuko Portuen Lehendakariak eskatuta: Roberto Hernández Fernández jauna.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek ondorioak izango ditu, kargugabetutako bokalaren berri Pasaiako Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari jakinarazten zaion egunetik aurrera; dekretua, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko uztailaren 26an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.